ALKOHOLARI LOTUTAKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

**AUTOEBALUAZIORAKO GALDE SORTA**

Alkoholak nerbio-sistema zentralean honelako eragina du:

| | |
|---|---|
| | a) Estimulatzailea |
| | b) Estimulatzailea eta Depresorea |
| | c) Depresorea |

Zer adierazten du edariaren alkohol-mailak?

| | |
|---|---|
| | a) Alkoholaren ehunekoa |
| | b) Uraren ehunekoa |
| | c) Daukan intoxikazio-arriskua |

Zer EZ den egin behar  pertsona bat mozkorturik dagoenean:

| | |
|---|---|
| | a) Gorakoa eragin |
| | b) Alboz etzanarazi |
| | c) Estali, hoztu ez dadin |

Odol litroko 0,5 g alkohol izateak alkoholemia jakin bat adierazten digu:

| | |
|---|---|
| | a) Putz egitean |
| | b) Odol-analisian |
| | c) Alkohol-kopuru handiak edatean |

Hasiberriak ez diren gidarien kasuan, ibilgailuak gidatzeko arriskua, indarrean dagoen araudiaren arabera, putz egitean alkohol-tasa hau edo hortik gorakoa dugunean gertatzen da:

| | |
|---|---|
| | a) 0,25 gr. alkohol |
| | b) 0,50 gr. alkohol |
| | c) 0,80 gr. alkohol |

Parrandan gabiltzanean, edari alkoholdunak edanez gero, hiru hauetako zein EZ DA autozaintza-neurria?

| | |
|---|---|
| | a) Ura eta zukuak edatea, alkoholak deshidratatu egiten baikaitu |
| | b) Noizean behin atseden hartzea, apur batez dantza egiteari uztea |
| | c) Sabela hutsik izatea |

Alkoholak ondorio hauek ditu nerbio-sistema zentralean:

| | |
|---|---|
| | a) Alkoholemia-mailarekiko alderantziz proportzionalak dira |
| | b) Alkoholemia-mailarekiko zuzenean proportzionalak dira |
| | c) Ez dira alkoholemia-mailaren araberakoak |

Alkoholaren gehiegizko kontsumoak honako hauek areagotzen ditu:

| | |
|---|---|
| | a) Jokabide bortitzak |
| | b) Nork bere buruaz egitea |
| | c) Biak |

Astean alkohol-kopuru honetatik gora kontsumitzea arriskuaren seinale da:

| | |
|---|---|
| | a) 14 unitate (140 g) emakumeetan eta 21 unitate (210 g) gizonetan. |
| | b) 21 unitate (210 g) emakumeetan eta 30 unitate (300 g) gizonetan. |
| | c) 30 unitate (300 g) emakumeetan eta 45 unitate (450 g) gizonetan. |

Alkohola beste droga batzuekin nahasten denean, eragin hau izan dezake:

| | |
|---|---|
| | a) Batugarria |
| | b) Murritzailea |
| | c) Biderkatzailea |

Izu- eta beroaldi-atakeak eta deshidratazio eta bizitzarako egoera arriskutsuak izateko arrisku gehiago dago alkohola substantzia hauekin nahasten bada:

| | |
|---|---|
| | a) Extasia |
| | b) Kalamua |
| | c) Ketamina |

Lortu nahi den sintomatologia izateko, gero eta alkohol kantitate handiagoa hartu behar izateak zera esan nahi du:

| | |
|---|---|
| | a) Mendekotasun fisikoa |
| | b) Tolerantzia |
| | c) Mendekotasun psikikoa |

Dutxa hotza bat hartzen badugu, ariketa fisikoa egiten badugu, kafe hutsa edaten badugu, arnas hartzea azkartzen badugu... alkohol-mailak hau egitea lortuko dugu:

| | |
|---|---|
| | a) Jaistea |
| | b) Igotzea |
| | c) Berdin mantzea |

Zuzendu